

## ESPAINIAKO SALESTARREN ESKOLEN KODE ETIKOA

### I.- SARRERA

Espainiako salestar inspektoriek berezko helburu dute pertsonen heziketa integralaren garapena, Salestar Eskolen Hezkuntza-proposamenean jasotzen denez.

Helburu hau lortzeko, pertsona bakoitzak eta Hezkuntzako eta Pastoraltzako Elkarte bakoitzak ardura eta eginkizun bereziak hartzen ditu, proiektu komunari egiten dion ekarpen bereziaren arabera.

Ikastetxe batean egiten den jarduera orok gizarte-proiektzioa du eta Salestar Eskolaren identitatea eta berezko izaera erakusten laguntzen du. Hezitzaileak, beren eginkizunetaz arduratzean, gizarteari egiten dioten hezkuntza-zerbitzuaren jakitun izango dira.

Honegatik, beharrezko bilakatzen da ikastetxeak kontratatzen dituen, bertan borondatezko lana egiten duten zein bitartekoek kontratatzen dituzten pertsonen eginkizunen eta jardueren garapenerako esparru mugatua eratzten duen Kode Etikoa definitzea.

Hau da ondoren aipatzen diren eta salestar hezkuntza-jardueraren oinarri eta irizpideei eta horrek gizarteari egiten dion ekarpen bereziari buruzko berariazko adierazpen hau itxuratzen duten xedapenen helburua.

### II.- KODE ETIKOAREN APLIKAZIO- EREMUA

Kode hau inspektoriako eskolen koordinazioari eta ikastetxe guzti-guztiei aplikatuko zaie, horietan lan egiten duten pertsona guztiak, bai salestarrak, zuzendariak, irakasleak, bai administrazioko eta zerbitzuetako langileak, bai praktiketako pertsonala, boluntarioak, laguntzaileak eta kanpoko langileak, lotesten dituela.

### III.- PRINTZIBIOAK

Oro har, Espainiako salestar inspektorietako ikastetxeetan eta eskolen koordinazioan lan egiten edo laguntzen dutenek Salestar Eskolaren Hezkuntza-proposamenean adierazitako izaera berezkoa eta hezkuntza-oinarriak eta -irizpideak ezagutu behar dituzte, beren lanbide-harremanen eremuan ikastetxeko kulturaren enbaxadore izateko. Horregatik, printzipio hauek errespetatzera behartuta daude, eta ezin dute Erakundearen balioei eta irudiari kalte egin diezaiekeen jokabide profesionalik burutu.

Ilido beretik, ikastetxeetan lan egiten duten salestarrek, zuzendariak, irakasleak, administrazioko eta zerbitzuetako langileak, praktiketako pertsonalak, boluntarioak, laguntzaileak eta kanpoko langileak ondorengo irizpideak eta jokabideak izango dituzte beren jarduera-eremuan:

- 1.- Salestar Kongregazioaren sorrerako karisma eta eskola katolikoaren esparruan kokatutako hezkuntzako eta pastoraltzako proiektuari eusten dioten giza eta espiritu-oinarriak ezagutu eta onartuko dituzte.
- 2.- Salestar hezkuntzak berezko duen prebentziozko sistema aplikatuko dute, orekaz zuzenduz, zigorrak arrazoituz, jendaurreko ironiak eta sarkasmoak saihestuz, konfiantzazko harremana eraginez eta autoestimua bultzatuz. Ikasleen hezkuntza-beharrez arduratuko dira, bai alde akademikotik zein giza garapenarenetik, batez ere behartsuenei dagokienez.
- 3.- Ikastetxeko bizikidetza ona sustatuko dute, prebentziozko sistemaren oinarriekin bat datorren giroari eusten lagunduz.
- 4.- Ikastetxean diren protokolo guztiak ezagutu eta aplikatuko dituzte, hala nola bizikidetza-plana, eskola-jazarpeneren aurkako plana, aniztasunarekiko arretarako plana edo ezar litekeen beste edozein protokolo.
- 5.- Beren hezkuntza-jardueraz gogoeta egiteko jarrerari eutsiko diote, elkarrizketa eta espiritu kritikoa bultzatuz eta norberaren esperientziatik ikasiz, lanbide-jarduera etengabe hobetzeko helburuz.
- 6.- Lan-profil bakoitzari esleitutako eginkizunak eta zereginak errespetatuko dituzte, Barne-erregimeneko Arautegian ezarritakoaren arabera, eta lankidetzarako eta talde-lanerako espiritua eragingo dute.
- 7.- Lankideen jardun profesionala balioestean, horien iritziekiko errespetua erakutsiko dute, horiei buruzko gauza gutxiesgarriak esan gabe, eta desadostasunak adierazteko, horretarako ezarri diren bideak erabiliko dituzte.
- 8.- Isil-gordea eta konfidentzialtasuna bete behar izango dituzte. Ez diete ikasleei, gurasoei, tutoreei ez hirugarrenei norberaren zein ikasleen, familien edo hezitzaileen bizitza pribatuari ez lan-bileretan aztertutako gaiak buruzko iruzkinik helaraziko.
- 9.- Familiekiko harremana bultzatuko dute, horiek seme-alaben heziketaren arduradun nagusi baitira, eta ikastetxearen eginkizunarekin, ikuspegiarekin eta balioekin bat etor daitezten ahaleginduko dira.
- 10.- Ikasleei, gurasoei edo tutoreei ikastetxeko arazo akademikoak eta antolaketari dagozkionak jakinarazteko, horretarako ezarri diren bide formalak erabiliko dituzte. Horien berri jasoko dute eta ofizialak ez diren bideak saihestuko dituzte.
- 11.- Pertsonak egokiro eta errespetuz tratatuko dituzte, Espainiako salestar inspektoria biek onetsi duten Adingabeak eta Heldu Zaurgarriak babesteko Ereduzko Kodeak sustatzen duenez.
12. Beren esku jarritako baliabide materialak eta teknologikoak erabiliko dituzte esleitu zaien eginkizuna garatzeko, ikastetxeak ezarritako parametroen barruan.

13.- Oso arduratsuak izango dira ekitaldi publikoetan eta hedabide orokorretan egiten dituzten adierazpenei dagokienez, erakundearen identitateari eta irudiari inolako kalterik ez egiteko.

14.- Beren higiene egokiaz arduratuko dira, beren irudi pertsonala eta presentzia eredu eta erreferentzia baitira ikasleentzat.

15.- Alkoholaren edo beste edozein drogaren eraginpean egon gabe egingo dute beren lana. Ez dute onartuko ez eragingo ez bultzatuko ikasleek alkoholik edo drogarik kontsumitzerik, Adingabeak eta Heldu Zaurgarriak babesteko Ereduzko Kodean jasotzen denez.

16.- Ez da onartuko, ikastetxeko lokaletan, Erakundearen identitatearen eta irudi onaren aurkako jarduerarik, ezta, legezko araudiaren arabera, parte-hartzaileen segurtasuna ziurtatu ezin den ekintzarik ere.

#### **IV. HEDAPENA ETA JAKINARAZPENA**

Kode Etiko hau argitaratuta egongo da, ikastetxeko gainerako agiriekin batera; horren inguruan, bidezko diren komunikazioko eta prestakuntzako ekintzak egingo dira, gardentasun- eta sentsibilizazio-printzipioei jarraituz, behar bezala ulertua eta erabilia izan dadin. Inorekin laneko edo zerbitzuak emateko harremanik ezartzen denean, Kode honen ale bat emango zaio.